



ITSAS OSASUNeko PROBINTZIA-ZENTROAK

A **CORUÑA** Avda. Ramón y Cajal 2 15006 Tel.: 881 90 98 00 • **ALACANT** Moll de Ponent 2 03001 Tel.: 965 12 65 23 • **ALMERÍA** Muelle Puerto Pesquero s/n 04002 Tel.: 950 62 02 11 • **BARCELONA** Albareda 1 08004 Tel.: 934 43 96 00 • **BIZKAIA** (Bilbao) Virgen de Begoña 32 48006 Tel.: 944 73 90 00 • **CÁDIZ** Avda. de Vigo s/n 11006 Tel.: 956 25 17 04 • **CARTAGENA** (Murcia) Paseo Alfonso XII s/n 30202 Tel.: 968 50 20 50 • **CASTELLÓ** Plaza Mikel Peris i Segarra s/n 12100 Tel.: 964 28 30 72 • **CEUTA** Avda. Cañonero Dato 20 51001 Tel.: 956 50 02 40 • **GIJÓN** (Asturias) Celestino Junquera 19 33201 Tel.: 985 32 72 00 • **DONOSTIA** (Gipuzkoa) Hermanos Otamendi 13 20014 Tel.: 943 48 32 00 • **HUELVA** Avda. Hispanoamérica 9 21001 Tel.: 959 25 74 11 • **LUGO** Ronda Múxico Xosè Castiñeira 10 Bajo 27002 Tel.: 982 22 50 10 • **MADRID** Churruca 2 28004 Tel.: 915 91 99 00 • **MÁLAGA** Pasillo del Matadero 4 (Puente del Carmen) 29002 Tel.: 952 35 93 61 • **MELILLA** Avda. de la Marina Española 7 52001 Tel.: 951 76 43 00 • **ILLES BALEARS** (Palma de Mallorca) Moll Vell 15 07012 Tel.: 971 72 56 06 • **LAS PALMAS DE GRAN CANARIA** (Las Palmas) León y Castillo 322 35007 Tel.: 928 49 46 45 • **CANTABRIA** (Santander) Avda. Sotileza 8 39009 Tel.: 942 31 95 18 • **SEVILLA** Fernando IV 1 41011 Tel.: 954 28 60 28 • **TARRAGONA** Francesc Bastos 19 43005 Tel.: 977 19 10 00 • **SANTA CRUZ DE TENERIFE** Avda. de Anaga s/n 38001 Tel.: 922 59 89 00 • **VALENCIA** Avda. del Puerto 300 46024 Tel.: 963 35 99 00 • **VIGO** (Pontevedra) Avda. de Orillamar 51 36202 Tel.: 986216100 • **VILAGARCÍA DA AROUSA** (Pontevedra) Avda. de la Marina 23 36600 Tel.: 986 56 83 00

ITSAS OSASUNeko TOKIKO ZENTROAK

ALGECIRAS (Cádiz) C/ Del Muro 11 11201 Tel.: 956 65 01 59 • **AVILÉS** (Gijón) Avda. Conde de Guadalhorce 97 33400 Tel.: 985 56 74 03 • **BARBATE** (Cádiz) Avda. del Generalísimo s/n 11160 Tel.: 956 43 05 79 • **BERMEO** (Bizkaia) Nardiz Tar Benanzio 7 48370 Tel.: 946 88 29 08 • **BURELA** (Lugo) Rosalía de Castro 20 27880 Tel.: 982 58 59 02 • **CARBONERAS** (Almería) Avda. del Faro de Mesa Roldán 950 13 01 38 Tel.: 950 45 41 95 • **CELEIRO** (Lugo) Avda. Gerardo Harguindey Banet 7 27863 Tel.: 982 56 15 06 • **CORCUBIÓN** (A Coruña) A Viña 5 15310 Tel.: 981 74 62 04 • **FERROL** (A Coruña) Ctra. Alta do Porto 25 15401 Tel.: 981 35 79 47 • **ISLA CRISTINA** (Huelva) Avda. Federico Silva Muñoz s/n 21410 Tel.: 959 34 38 63 • **MUROS** (A Coruña) Porta da Vila 16 15250 Tel.: 981 82 61 62 • **NOIA** (A Coruña) Avda. de la República Arxentina 21 15200 Tel.: 981 82 15 00 • **ONDARROA** (Bizkaia) Ibai-Ondo 6 48700 Tel.: 944 98 43 20 • **PALAMÓS** (Girona) Plaça Califa 3 17230 Tel.: 972 31 21 76 • **PONTEVEDRA** Simón Bolívar 3 36003 Tel.: 986 84 59 63 • **ROSES** (Girona) Doctor Fleming 0 17480 Tel.: 972 25 51 02 • **SANTOÑA** (Cantabria) Méndez Núñez 1 39740 Tel.: 942 66 06 50 • **SANTA UXÍA DE RIVEIRA** (Vilagarcía da Arousa) Praza dos Mariñeiros 8 15960 Tel.: 981 87 05 40

Itsasontzian lan egiteak arrisku handiak ditu. Nabigazioaren berezko arriskuez gain, arrantza- eta merkantzia-ontzietan etengabe mugitzen den lan-bitartekoko lanak egiten dira, gainazalak irristakorrak izan daitezke eta indar handiko makinak eta tresnak erabiltzen dira.

ZURE ONGIZATEA gure lehentasuna



Nipo papel: 123-22-034-8
Nipo digital: 123-22-035-3
Depósito legal: M-16432-2022



UNIÓN EUROPEA
FONDO SOCIAL EUROPEO



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES



SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES

INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA



UNIÓN EUROPEA
FONDO SOCIAL EUROPEO



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES



SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES

INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA



Nola jar naiteke harremanetan Espainiako Irrati Zentro Medikoarekin?

Nabigatzen dabilen edozein itsasontzi jar daiteke harremanetan CRMErekin, honako hauen bidez:



IRRATI bidez:

-Telefoniaren Itsas Zerbitzua Espainian, eta adierazi “kontsulta medikoa” egiteko dela edo.

-Nazioarteko edozein kostaldeko estazioan, CRMErekin telefonozko komunikazioa eskatuta.

Doako eta lehentasunezko zerbitzua da



SATELITE ETA TMA (telefono mugikor automatiko) BIDEZ



CRMEren TELEFONO-ZENBAKIA: 91 310 34 75

Nola jarri harremanetan laguntza-itsasontziekin?

1 ESPERANZA DEL MAR LAGUNTZA-ITSASONTZIA
Telf.: 00870773130011/012

2 JUAN DE LA COSA LAGUNTZA-ITSASONTZIA
Telf.: 00870773130013/014



NOLA JARDUN BEHAR DA ITSASONTZIAN ISTRIPUA EDO GAIXOTASUNA GERTATZEN BADA

Itsasontzian osasun-arazorik gertatzen bada, irratik bidezko kontsulta medikoa da itsasoratutakoek laguntza eskatzeko duten bide garrantzitsua. Espainian, Madrilgo Espainiako Irrati Zentro Medikoa (CRME gaztelaniaz) eta laguntza-itsasontziak, biak Itsasoko Gizarte Institutuaren menpekoak, daude eskuragarri, itsasontzian gaixotasuna edo istripua gertatzen bada.

GAIXOTASUNA

Organismo baten edo zati baten ohiko funtzionamendua arinki edo larriki aldatzen denean gertatzen da, sintoma bidez adierazten den barne- edo kanpo-arrazoigatik.

LANEKO ISTRIPUA

Laneko istripua da besteren kontura egindako lanaren bidez edo ondorioz langileak jasan duen gorputzeko edozein lesio. Laneko zentrotik langilearen etxerako ohiko ibilbidean gerta daitezkeen lesioak ere laneko istripuak dira (“in itinere” istripuak).

Ezohiko gertaerak dira, bat-batean eta ezustean gertatzen dira, eta saihegarriak izan ohi dira.

Laneko istripu bat gertatzen bada, jakinarazi egin behar da beti.

ISTRIPUA GERTATZEN BADA, GARRANTZITSUA DA ADIERAZTEA:



Nola gertatu den, eta itsasontziko zein lekutan, zein egunetan eta zein ordutan.



Gorputzeko zein zati dagoen lesionatuta. Sintoma-egoeraren orriaren arabera adierazi behar da (sintoma edo lesio egoeraren orria).



Lesio mota deskribatu behar da: erredura, hemorragia, haustura, kontusio edo zaurien kasuan, non gertatu den zehaztuko da, zein tamaina eta sakonerakoa den azaldu, mugimenduak aldatu diren ala ez, edo indarra edo sentikortasuna galdu den.



Gainera, prozesuaren sintoma guztiak idatziz jasoko dira, hala nola, mina, kontzientzia galtzea, arnasteko zailtasuna, etab.

ISTRIPUAK JAKINARAZTEA ETA ERREGISTRATzea

Jakinarazpena esaten zaio istripu baten deskribapena idatziz jakinarazten denean, Istripu Agiria deitzen zaion dokumentuaren bidez. Bertan jasoko dira beharrezko datuak, esaterako: nola, noiz eta non gertatu den istripua, eta zein ondorio izan dituen.



Nork jakinarazi behar du?

Praktikan, jakinarazpena istripua gertatu zaion langilearen buruak egin behar du. Armadoreak kapitain edo patroiarri erraztuko dizkio lege-betebeharrekin betetzeko bitartekoak.

Gaixotasuna edo istripua gertatu bada, NOLA EGIN KONTSULTA?

Irrati-kontsulta medikoa egitean:

Lasai egoten saiatu.

Kontsulta egin baino lehen, hartu pazientearen datu eta sintoma guztiak. Istripu larria bada, zaurituari berehala emango zaio laguntza, eta ondoren jakinaraziko zaizkio haren datuak medikuari.

Ahal bada, pazientearen bertan egongo da kontsulta egitean. Hori posible ez bada, tripulatzailerik batek lagunduko du medikuak eskatutako datuak jaso eta helarazten.

Beharrezkoa da eskuragarri edukitzea itsasontziko botikinak duenaren zerrenda.

Argi eta garbi eta poliki hitz egin behar da, eta ahalik eta laburren egin, CRMErekin komunikazioa errazteko.



Kontsulta amaitutakoan, CRMEren edo laguntza-itsasontziko medikuak honako hau gomenda dezake:



Itsasontzian egiteko tratamendua eta, horretarako, CRMEren medikuaren jarraibideak hartuko dira kontuan. Eboluzioaren arabera jarraipena egingo da.



Laguntza-itsasontzian kontsulta egitea (Esperanza del Mar edo Juan de la Cosa), gaixoaren itsasontzia laguntza-itsasontzien nabigazio-eremuan baldin badago betiere.



Mediku edo espezialista batek ikusi edo artatuko du lurrean.



Ibilbidea desbideratzea: pazientearen itsasontziaren helmuga edo portua ez den beste leku batean jasotzea laguntza medikoa.



Ebakuazioa: berehalakoa izan daiteke, pazientearen bizitza arrisku larrian baldin badago, edo epe laburrean egoerak okerrera egingo duela uste bada.



CRMEren guardiako medikua harremanetan jarriko da CNCS rekin eta pazientearen ebakuazio medikoa koordinatuko du. Ebakuazioa aire edo itsaso bidez egin daiteke (itsasontzian bertan, beste itsasontzi batean edo Salbamenduko txalupa azkar bidez) larritasunaren eta ebakuazioaren lekua arabera.

Espainiako lurraldetik kanpo laguntza medikoa jaso baldin bada, hori amaitzean edo aukera dagoenean, tripulatzailerik herriratzeko da.



HERRIRATzea: Itsasoko langile orok eskubidea dute, gaixotasuna, istripua gertatu bada, edota herriratzea beharrezkoa den beste edozein arrazoi mediko dela eta.



1 EZ AHAZTU atzerrian jasotako laguntza medikoaren txostenak eta egiaztagirak eskatzeaz.

2 Kontua hartu irratik bidezko kontsulta medikoa eta aurrez aurreko bisita ez direla ordezkarriak, bisita pazientearen “ikustea” eta “ukitzea” da eta diagnostikoa egiteko bitartekoak daude (analiak, erradiografiak, etab.) eta horiek ez daude arrantza- edo merkantzia-ontzietan.



GOGORATU: “EZ ZAUDE BAKARRIK, CRMErekin edo laguntza-itsasontziekin jar zaitezke harremanetan, urteko egun guztietan eta edozein ordutan.”

